

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

EKONOMIA SUSTATZEKO PLANAREN DIRU LAGUNTZEN **INGURUKO MOZIOA**

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, ekonomia sustatzeko planaren diru laguntzen MOZIO hau aurkezten du, Osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonetako Batzordean 2016ko azaroaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko agintaldian Udal Gobernuak Ekonomia Sustatzeko Planak abian jarri zituen. Haien aurrekontua beti hazi zen urtez urte: 2012an 4,3M; 2013an, 6,9M; 2014an, 7,3M eta 2015ean 8,3M. Argi dagoenez, hura Udal Gobernuaren lehentasunetako bat zen. Donostiako Sustapenak, alde batetik, hiriaren ezagutza ekonomikoa hobetu du eta, bestetik, izugarritzko sare bat lantzeko aukera izan du: instituzioak, unibertsitateak, zentro-teknologikoak, auzo elkarteak, ostalaritza, enpresak, merkataritza eta abar. Guztira 80 eragile baino gehiagok parte hartu dute.

Erabilitako leloek helburuak nabarmentzen zituzten: "Gehien behar duenarentzat. Gehien behar den lekuan"- "Ekonomia Sustatzeko 2015eko Plana, Kalitatearen eta Berrikuntzaren alde apustu eginez. Enpleguan ere, Kalitateko Donostia baten alde".

2016ko plana onartu zenean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza, aurrekontuan 125.000 eurokoa zen eta urtean zehar handituko zela esan zigen Udal Gobernuak. Gogorarazi behar da 2015ean, Bildu Foru Aldundian zegoela, ekonomia sustatzeko planaren diru-laguntza zela-eta, 589.716 euro jaso zituela Donostiako Udalak. Aurten Foru Aldundia kopuru horretara ez da iritsiko, baina datorren urteko aurrekontuan, diru laguntza 80.000 eurora jaitsi du. Sinestezina iruditzen zaigu.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Delegatuak batzordean esan zuenez Aldundiko diru laguntza Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa departamentutik dator, 2016an eta 2017an *Smart* kale bat Altzan gauza dadin. Bestalde, Ekonomia Sustatzeko departamenduak momentuz diru laguntzak emateko konpromisorik ez du hartu. Gascok eskaera luzatu duela argitu zuen baina oraingoz ez dago erantzunik.

MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiarekin negoziatzea dezala Ekonomia Sustapeneko departamenduak ekarpen ekonomiko garrantzitsuagoa egitea, gutxienez, 2015eko diru-laguntza kopurura iritsi dadin; Udal Sustapen plana eraginkorragoa izateko helburuarekin.

Donostia, 2016ko azaroak 18

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia